

Die Linkeko burukideak greba orokor politikoa aldarri

Euskal Herrian egindako ibilaldiaren barruan, Aralarrek sortu berria duen Ezkerraberi fundazioak gonbidatuta Donostiako Koldo Mitxelena mintzatu da Florian Wilde Alemaniako Die Linke alderdi ezkertiarreko kidea.

| PELLO ZUBIRIA KAMINO |

ARETO BETE samartu bati aritu zitzaion Florian Wilde, aurkezpenak Inaki Irazabalbeitiak eginik. “Erresistentzia eraikitzen ekaitzaren begian: Alemaniako ezkerria eta Europako krisia” izan zituen hizpide, kazetari honi Aralarrekoen baino Sortuko jendeen diskurtsoetik hurbilagoa iruditu zitzaion moduan.

Berria egunkarirako Samara Veltek egin dion “Eskuineko populismoari aurre egiteko, Europarekiko kritika argi azaldu behar da” elkarrizketan bilduta daude Wildek esandako ideietako asko.

Funtsean, Alemaniak 1990eko hamarkadatik hona bere langileei ezarritako estrategia neoliberalak gaur oker “austeritatezkoak” deituak sartu nahi dizkiela orain bortxan Europako beste guztiegi; eta Die Linke bildu diren mugimendu eta jendeak, SPD sozialdemokratatik eta liberalismoaz gain gerra ere onartu duten Berdeetatik ezkerretara egonik azken bi hamarkadotan talde berri horretan batu direnek, Europako erresistentzia mugimenduekin bat egin nahi dutela.

Bere hitzaldia Euskal Herriko langileei loreak botaz hasi, ongizate gizartea eraisteko politiken kontra European gehien borrokatzen duteneta-koak omen direlako, eta greba orokor politikoa aldarria eginez bukatu zuen.



ELAko eta Aralarreko kideak Florian Wilderekin (bigarrena ezkerretik).

Aitorturik Alemanian 1920 urrun hartatik ahaztuta dauzkatela horrelako grebak, Wildek azpimarratu zuen azken urteotan garrantzi berezia hartu dutela Europako hainbat lekutan behin eta berriro egiten diren greba orokorrok, nahiz eta orain arte horiek sinbolotzat dauzkaten mugak gainditu beharra ere azpimarratu.

Kapitalistek sututa daukate klase gatazka berria, dio Wildek, aspaldi ahaztu zituzten langileekin elkarlanean aritzea eskaintzen zuten kantak, sindikatu nagusiak ere ohartuta daude gerra osteko klase

Wilderentzat garrantzi berezia hartu dute Europako hainbat tokitan egindako greba orokorrek

elkarlana aspaldi joan zela pikutara.

Oraindik sindikatu batzuk eta alderdi erreformistek jarraitzen duten arren mezu berarekin, eta agian Alemanian udazkeneko hauteskundearen ostean Merkelekin Gobernu bakarra osatzen saiatuko diren arren, gero eta herritar eta talde gehiago omen dago ohartua kapitalistei eta hauek gatibu hartuta daukaten Estatuari hortzak erakutsi behar zaizkiela.

Mezua gustura entzungo zuten gurean hurrengo greba orokorra antolatzen ari diren ELAk eta LABek.

Aurrera begirako hurrengo zita hau apuntatu: maiatzaren 31n eta ekainaren 1ean bigarren aldiz burutuko da Frankfurten Blockupy eguna. Iaz lehenbiziko aldiz eginik, *The Guardian* egunkarian John Holloway idatzi zuen: “Blockupy Frankfurt, itxaropen zirriztu bat austeritate garaiotan”.

AEBetan Occupy mugimenduak lortu zuen mobilizazio maila era europarrean lortu nahi dute, murrizketek kaltetutako hainbat giza talde –aurtengoan bereziki aipatzen dute pobretzeak emakumeen artean eragindako kaltea– elkarrekin mobilizatzea deituz. Maiatzaren 30eko euskal greba gerta daiteke Blockupyren ordezkaritza. ■

